Nueva gestión de listas-zerrenden kudeaketa berria

| ZERRENDA MOTAK | BALDINTZAK | PUNTUAZIOA/ ORDENA | IRAUNALDIA | OHARRA |
|---|---|---|---|---|
| 1. Plazarik gabe gainditu dutenak | Oposizioa gainditu eta plazarik eskuratu ez dutenak. | Oposizioko<br>Nota<br>Orokorra<br>(Oposizioa + lehiaketa) | Hurrengo<br>oposizioa<br>izan<br>arte | Lehentasuna minusbaliotasuna (≥%33) dutenek. |
| 2.- Izangaien zerrenda orokorra | -Gutxienez 1. azterketara aurkeztu.<br>-Oposizio fasean puntuazio positiboa (>0) lortu.<br>-Espezialitatean eskatzen den titulazioa. (1. eranskina) | | | Zerrenda hauetan egoteko "baldintzak" zutabean dauden 3 kuadroetatik, kuadro bateko balditzak bete behar dituzu. |
| | Deialdia egin den ikasturtean zerrenda batean egon eta oposizioan beste espezialitate batera aurkeztu eta oposizio fasean puntuazio positiboa (>0) eskuratu. | Esperientzia<br>Oposizioan sail honi dagokionaren arabera. | | |
| | Deialdia egin den ikasturtean kontratu bat izan. | 0 puntu<br>Oposizioko epaimahaien aukeraketan eta aktuazio ordenaren arabera alfabetikoki hurrenkeran ordenatuak. Kasu honetan, "HL" hizkiak Lehen Hezkuntzan. | | |
| 3.- Izangaien zerrenda | Eskatzen den titulazioa eduki eta apuntatu. | Titulazioak eta espediente akademikoa | Hurrengo deialdi espezikorarte. | Deialdia web orria edo prentsaren bidez.<br>- Deialdi bat baino gehiago baleude, deialdi berrikoak aurretik zeudenen atzetik egongo lirateke.<br>- Kontratu bat onartzen dutenak zerrenda orokorrera pasako dira baina puntuaziorik gabe. |
| 4. Enplegu zerbitzu publikoen bidez (INEM) deialdi propio batengatik osatua. | INEM-en apuntatua egon | INEM-ekoaren bera | Urtebete | |

STEE-EILAS

- Luzapena: Hurrengo ikasturtean Bigarren Hezkuntzako, Lan Hezkiketako, Arte Plastikoetako, EOIko eta kontserbatorioko zerrendek berdin jarraituko dute (errebaremaziorik gabe).

- Zerrendan duzun postua kontserbatuko duzu lanpostu ibiltari edo lanaldi erdia baino gutxiagoko kontratuei ezetz esanez gero.

- Zerrenda guztien bukaerara pasatuko zara lanaldi erdia edo gehiagoko kontratu bati uko egiten badiozu, baina ez zaituzte botako. Ez zaituzte berriro deituko zerrenda guztiak bukatzen diren arte. Kasu honetan, departamentuak gehienez kontratu bat gehiago eskainiko dizu.

- Abuztuaren 31n zerrendak berregituratuko dira eta sortu ziren momentuan zeuden moduan utziko dira. Beraz, ikasturtean zerrendaren barruan zure posizioa aldatu bada, hurrengo ikasturtearen hasieran, zerrendak sortu ziren momentuan zeunden tokira bueltatuko zara.

- Hornikuntza zaileko lanpostuak 3 ikasturtetarako eskeiniko dira: Erronkari, Otsagabia, Garralda, Luzaide eta Zugarramurdi.

- Aldez aurretiko errenuntziak: Aurten oposizioen deialdia egin ez den zerrenda batean bazaude eta datorren ikasturtean lan egitea interesatzen ez bazaizu, maiatzaren lehen hamabost egunetan errenuntziatu dezakezu. Zerrendan leku berean jarraituko duzu eta ez duzu inolaz ere justifikatu beharrik.

- Kontserbatorioa, zerrendak bitan banatuko dira:
    - Oinarrizko Irakaskuntzakoak eta Profesionalekoak.
    - Goi Mailakoak.

STEE-EILAS